

# Go App Bilbao - CimubiSARIA 2017

Hiriaren garapen ekonomikoa sustatzeko, Bilboko Udalak sektore estrategikotzat jotzen du Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) alor osoa.

Beste segmentu estrategiko batean, hots, gure hiriko Turismoan, gero eta gehiago behar dira IKT teknologia horiek balio erantsia sortzeko, urtero gu bisitatzera etortzen direnen ezagutzan oinarrituta. Arlo horrek gero eta BPG handiagoa sortzen du Bilbon.

Horra hor esparru publikoa eta pribatua lankidetzan aritzeko eremu bat. Bilboko Udalak OPEN DATA txertatzen du bere lanean, eta horrek gaitasun gehiago eman diezazkioke hiriko zerbitzu turistikoek ekosistemari kosorkuntzaren bidez, denon artean hobeto jakiteko nola funtzionatzen duen gurera etortzen den turismoak.

Datuen bidezko ezagutza horrek (askotan, denbora errealekoa) administrazio publikoei zein sektore pribatuari lagundu egingo die erabaki hobeak hartzen, turistei eta bisitariei zer/nola/noiz/zenbat... eskaini; batez ere, lortzen badugu sortutako datu guztiak OPEN izatea, Bilboko Udalak hain barneratua duen GARDENTASUN-estrategiari jarraikiz.

Gero eta gehiago behar ditugu datu erreala eta ezagutza enpirikoa Udaleko erabakiak hartzeko. Datua ezagutza bihurtzen da, eta, ezagutza, balio erantsi. Hori dela eta, Bilboko Udala aspalditik ari da tresna teknologiko horiek eskuratzen, erabaki gero eta egokiagoak eta hiriaren errealitateari hobeto egokitzen zaizkionak hartzeko, eta, ahal dela, erronkei aurrea hartzeko.

Ezagutza sortzeko bide horretan, Udaleko langileok ezin dugu den-dena egin, eta hiriko beste eragile batzuek gurekin batera sor dezakete balio erantsi handiena emango duen eredu bat. Horren emaitzek OPEN izan behar dute, Bilbo Handiko, Bizkaiko eta Euskadiko ekosistema osoak erabili ahal izan ditzan.

Gainera, ekimenaren ardatz nagusia da gazteen eta ekintzailtzaren talentua aktibatzea, erreferentziazko kide estrategiko baten eskutik: Google, apustu irmoa egin baitu Bilboren alde. Beraz, ilusioz gainezka gaude.




Erronka teknologikoa Bilbo ezagutzeko  
Reto tecnológico para descubrir Bilbao

**GO**  
app! Bilbao Cimubi **S**aria  
Bilbao

Antolatzaileak / Organizan :



apps  citizens



# ERRONKA: BILBORA ETORRI ZEN INGELESA

Esan gabe doa iraultza digitalak eta gailu mugikorren iraultzak eraldatu egin gaituztela, eta gure ohiturak, gure jokabidea, elkarrekin harremanetan jartzeko modua eta gauzak egiteko modua aldatu egin dituztela bizitzako ia alderdi guztietan...

Turismoaren arloa ez da salbuespena. Eraldaketa geldiezin horrek eragina izan du bidaia-agentzietan, mapetan, liburuxketan eta papereko gidetan, bai eta ibilgailu propioetan eta hoteletan ere, besteak beste.

Turistak zenbatzeko eta haien jokabidea aztertzeko metodo tradizionalak gertatzen denaren inferentzia osatugabea dira, are gehiago kontuan hartuta esperientzia osorik aztertzea interesatzen zaigula, hemendik hasita: pertsona bati noiz eta nola pizten zaion norako batekiko interesa, gure kasuan Bilborekikoa (edo Euskadirekikoa, zentzurik zabalenean).

Ingeles hura... zergatik etorri zen Bilbora? Helmugako egonaldiaren aurretikoak. Tradizionalki, beti jo izan da egonaldia bera aztertzerako, datuak biltzeko modurik errazena zelako, ziurrenik: ostatuetakoa egonaldiak, turismo-bulegoetarako bisitak, sarreraren salmenta baliabide turistiko nagusietan...; dena atzera begira, iraganera, bisita amaituta baitago. Eta Bilbora etorri beharrean Lisboa joan izan balitz? Bere etxean zegoenean, zer zalantza zerabiltzan buruan, zer hiri bisitatu? Eta zalantza horiek entzuteko gai izango bagina, eta, proaktibitatez, zalantza horiek uxatu eta hura konbentzitzeko, hain zuzen, Bilbora etorri behar duela?

Eta gerokoa? Ez ote da interesgarria gerokoa? Jakitea zer iritzi duten gure turistek eta bisitariak hemendik joaten direnean (joaten badira, badakigu gurean izan zirela...). Jakitea zer gustatu zaien gehien, zer gutxien, haien iruzkinak, kritikak, ezusteko atsegina eman zien ustekabeko alderdi hura...

Iraultza horrek berekin dakarren informazio-unibertso bat ireki zaigu, eta, zalantzarik gabe, gure turisten eta bisitarien esperientzia turistikoa hobeto ezagutzen lagundu diezaguke: sare sozialak, garraiobideen web-atariak, web-atari tematikoak eta turismoan espezializatuak edo web-atari orokorrak (Google Maps...), aplikazio mugikorrek, wifi eta/edo 4G/5G konektibitatea... edo imajina edo suma dezakezuen beste edozein alderdi, Bilbora lagundu diezaiokeena

ezagutzen, jakiten, interpretatzen, aukerari aurrea hartzen, desengainuaren ondoren zuzentzen...; laburbilduz: asmatzen.

Ez dugu amaitu nahi CIMUBISArentzat eta Bilboko Udalarentzat berebiziko garrantzia duen gai bat nabarmendu gabe. Ez dugu jakin nahi, ezta jakin beharrik ere, zer pertsonak egiten duen zer (izen-abizenekin), ezta ezagutza hori inferitu zitekeenik ere. Inola ere ez. Muturreraino errespetatzen ditugu informazio horren guztiaren anonimatua eta datuen babesa. Gure hirira etortzea bururatzen zaien, etortzen diren, eta, joaten direnean, beren esperientzia kontatzen duten turisten eta bisitarien segmentuak zehaztea interesatzen zaigu.

Alderdi hauek interesatzen zaizkigu, besteak beste: nongoak diren, nondik datozen, nola etortzen diren, zer egonaldi egiten duten Bilbon, non ibili diren edo non ez; familiarekin etortzen diren, lagunekin, bikotekidearekin; zergatik hautatu gaituzten gu edo beste norako bat, zer gustatu zaien gehien, non hartu duten ostatu, zeren falta nabari duten...

Datuei erreparatzen badiezue, iraganean hitz egiten da ia beti, baina, aurrea hartzen laguntzen badiguzue, sumatu beharrean iragartzen laguntzen badiguzue, Bilboko Udala zein saltokiak eta turismoari lotutako zerbitzu guztiak gai izango gara aurrea hartzeko eta gure burua prestatzeko, bisitan etortzen zaizkiguneren esperientzia ahalik eta onena izan dadin.

Orduan, lagungarri izango gatzaizkio gure administrazio publikoari kalitateko zerbitzuak eman ditzan, eta turismoaren sektoreko saltokiek eta hornitzaileek, oro har, identifikatutako segmentuen eskari zehatzera egokitu ahal izango dute beren eskaintza, ia denbora errealean; hala, ekonomia zirkularra sustatuko da, eta Bilbo eta inguruak esperientzia erakargarriagoa eta atseginagoa bihurtuko dira.

Ez da ahaztu behar teknologia berrietan oinarritutako ekimen hau bat datorrela Udalaren estrategia honekin: kalitateko zerbitzu aurreratuen garapena bultzatzea. Datuen azterketa aurreratuak, informazio objektiboan eta denbora errealetik gertuen dagoen informazioan oinarrituta hartzea erabakiak, eredu prediktiboak eta aginduzkoak...

Lagundu nahi diguzue? Lor dezagun beste "ingeles" bat Bilbora etor dadin... behin baino gehiagotan. Bai, gera dadila eta ekar dezala bere talentua gure hirira, eta konta dezala bere esperientzia. Eta egin dezagun denon artean, gure herriak hain berezkoa duen auzolanarekin jarraituz.

# Lehiaketaren egutegia

## 1. Fasea · Go App Bilbao

Data	Ordua	Jarduera	Lekua
Uztailaren 19a	11:00	Aurkezpen-prentsaurrekoa	Udaletxeko prentsa-aretoa
Uztailaren 19a	12:00	Bilera teknikoa parte hartu nahi duten pertsona eta erakundeekin	erabakitzeke
Irailaren 26a	9:00	Garapenaren jardunaldia. Bilera parte-hartzaileekin, zalantzak argitzeko.	erabakitzeke
Urriaren 19a	17:00	Izena emateko epearen amaiera	webgunea
Urriaren 24a	19:30	Go App saria ematea	erabakitzeke

## 2. Fasea · CimubiSARIA 2017

Data	Ordua	Jarduera	Lekua
Urriaren 24a	24:00	Izena emateko epearen amaiera	webgunea + posta
Abenduaren 17a	24:00	Ekoizten jartzeko epearen amaiera	kanalak
Abenduaren XX(e)(a)n	XX:00	CimubiSARIA saria ematea	erabakitzeke

# **Bi faseko lehiaketa**

## **1. FASEA · Go App Bilbao**

## **2. FASEA · CimubiSARIA**

# **Lehiaketaren oinarriak**

## **1. FASEA · Go App Bilbao**

### **1. Go App Bilbao lehiaketaren xedea**

Go App Bilbao lehiaketa apps4citizens-ek antolatzen du, Googlerekin eta Bilboko Udalarekin lankidetzan, eta haren xedea da herritarrei eta eragileei parte harraraztea beren udalerrian edo autonomia-erkidegoan dauden gizarte-erronkei irtenbideak bilatzen, aplikazio mugikorrek sortuz.

Kasu honetan, Bilboko Udalak gizarte-erronka jakin bat identifikatu eta zehaztu du, eta erronka horrekin zerikusia duten ahalik eta tresna eta datu gehien jarri ditu herritarren eskura. Lehiaketako parte-hartzaileek epe jakin bat izango dute aplikazio mugikorretarako dituzten prototipoei edo proposamenei itxura emateko, eta arlo teknologikoan eta sozialean ospe handia duten adituek osatutako epaimahai bati aurkeztu beharko dizkiote.

Aurkeztutako ekimen guztien artean, epaimahaiak bost finalista hautatuko ditu, eta 1. faseko "Itxiera Jardunaldian" emango dira jakitera. Parte-hartzaile finalistek beren proiektua defendatu egin beharko dute, eta epaimahaiak, deliberatu ondoren, talde irabazleari emango dio saria.

### **2. Lehiaketaren antolatzailea**

apps4citizens da "Lehiaketaren 1. fasearen Antolatzailea" (aurrerantzean, "Antolatzailea"), eta lehiaketaren 1. fasea kudeatzeaz eta lehiaketari buruzko erabakiak hartzeaz arduratuko da.

Antolatzaileak eskubidea dauka hautagaitzak jasotzeko eta sariak emateko epeak eta lehiaketaren beste edozein oinarri aldatzeko, betiere, gorabeheraren bat tarteko, hori beharrezkotzat jotzen badu.

Halaber, Antolatzaileak eskubidea dauka lehiaketa aldi baterako eteteko edo bertan behera uzteko, horretarako arrazoi justifikatuak ikusten baditu; erabaki horren aurrean, lehiaketa babesten duten erakundeek ez dute erantzukizunik izango.

### **3. Parte hartzeko baldintzak**

Go App Bilbao lehiaketan, banaka edo lau lagunerrainoko taldetan har daiteke parte.

Lehiaketan, 18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok har dezake parte, bai eta pertsona juridikoek ere, betiere *start-up*ak, elkarteak, ETEak edo parekagarriak badira; pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko, parte-hartze bakarra onartzen da. Deialdian irekiko den web-formularioaren bidez (<http://goapp.apps4citizens.org/bilbao>) eman behar dute izena parte-hartzaileek. Taldeei dagokienez, baten batek atzera egiten badu edo baten bat ordeztan bada, lehiaketaren Antolatzaileari jakinarazi behar zaio.

Ezin dute lehiaketan parte hartu hura antolatzen parte hartu dutenek, ez eta lehiaketa antolatu duten edo lankidetzan aritu diren erakundeetako langileek ere, ez eta haien lehen graduko senideek, aurreko ahaideek, ondorengoek, ezkontideek edo izatezko bikotekideek ere.

Lehiaketan parte hartzeko, berariaz onartu behar dira lehiaketaren oinarriak. Lehiaketan izena emanaz gero, jotzen da parte-hartzaileak onartu dituela lehiaketaren oinarriak.

Antolatzailea ez da arduratzen soluzio teknologikoa garatzen duenak egin ditzakeen jabetza intelektualeko arau-hausteez edo bestelako arau-hausteez; haien erantzule bakarra parte-hartzailea da.

### **4. Nola hartu parte**

Go App Bilbao plataformaren deialdiaren orrialdean aurkeztu behar dira hautagaitzak. Parte hartzeko, erabiltzaileek taldekideen izen-abizenak eman behar dituzte, edo lehiatu nahi den banakoarena. Izena ondo emango bada lehiaketan, eskatzen diren datu guztiak bete behar dira.

Lehiaketan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu behar dira. Aurkeztutako aplikazio-prototipo mugikorra ez da Itxiera Jardunaldian parte hartzeko aintzat hartuko Epaimahaiak egiaztatzen duen arte aplikazio-prototipo horrek betetzen dituela lehiaketaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak.

Antolatzaileak eskubidea dauka proposamen bat ez onartzeko goian esandakoa ez duelako betetzen, eta, ondorioz, Antolatzaileak berretsi



arte, ez da joko behin betiko onartuta dagoela. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoa beteko da une oro. Alde horretatik, lege horren arabera, parte-hartzaileei jakinarazten zaie apps4citizens arduratuko dela lehiaketako parte-hartzea kudeatzean sortutako datuen tratamenduaz, eta lehiaketa behar bezala kudeatzeko behar diren antolaketa, hedapena eta komunikazioa izango dituela xede tratamendu horrek.

Orobat, apps4citizens-ek ez dizkio beste ezein erakunderi lagako tratatutako datuak, lege aurreikusitakoak izan ezik, erabiltzaileen aurretiko baimenik gabe. Lehiaketaren oinarriak onartzean, parte-hartzaileek eta, hala badagokio, finalistek edo irabazleek berariaz ematen diote baimena lehiaketaren Antolatzaileari haien izena eta irudia erabiltzeko, bai eta aplikazioaren irudia eta izena erabiltzeko ere, lehiaketaren kudeaketaren emaitza gisa egiten diren promozio publikoko ekintzetan edo komunikazio-ekintzetan, Interneten edo beste edozein komunikabidetan. Halaber, parte-hartzaileek baimena ematen dute beren aplikazioaren izenaren ondoan beren izen-abizenak argitaratzeko, lehiaketaren webgunean edo beste hedabideren batean, aplikazio finalistek izena eta, ondoren, aplikazio irabazlearen izena argitaratzean. Beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko duten eskubidea gauzatzeko, parte-hartzaileek idazki bat bidali behar dute posta-helbide honetara: apps4citizens, Consell de Cent 159, (A lokala), 08015 Bartzelona.

## **5. Lehiaketaren egutegia eta emaitza**

Go App Bilbao-ren webgunean (<http://goapp.apps4citizens.org/bilbao>) adierazitako datetan eman behar dute izena lehiaketan interesa dutenek.

### **Finalistak hautatzeko prozesua**

Izena emateko epea itxi ondoren, Epaimahaiak bost finalista hautatuko ditu. 1. fasearen itxiera-egunean egindako defentsaren ondoren, finalistek Epaimahaikideen puntuak jasoko dituzte. Boto gehien lortzen dituen izango da irabazlea. 5 finalista hauei informatuko zaie urriaren 20an, posta elektronikoen bidez, bere proiektua aukeratua izan dela eta Epaimahairen aurrean aurkezteko aukera izango dute urriaren 24ean, 1. Fasearen itxiera eta sariaren jardunaldian.

### **Gutxieneko baldintzak**

Lehiaketaren 1. fasean aurkezten diren hautagiak prototipo bat eduki behar dute gutxienez, epaimahaikideek hura probatu eta nola funtzionatzen duen ikus dezaten. 5 aukeratutakoak bakarrik proiektua ere azaldu behar dute —erabil daitezke Googleko aurkezpenak, PowerPoint, Prezi, bideoa edo egoki den beste edozein formatu—.



## **6. Edukia**

Bilboko Udalak hautatutako erronka jakinari buruzko proposamenak bakarrik aurkeztu daitezke lehiaketara.

Kasu guztietan, saritutako edukiak originala izan behar du, eta norberak egina, eta prototipoak eta/edo aplikazioak ezin ditu inola ere urratu hirugarren batzuen jabetza intelektualerako edo industrialerako eskubideak. Proposamenen egileek adierazten eta bermatzen dute lehiaketan parte hartzeko aurkeztu duten prototipoak edo aplikazioak ez duela hirugarren batzuen jabetza intelektualerako ezin eskubide urratzen, ezta beste edonolako eskubiderik ere, eta, horretarako, edozein hirugarrenen beharrezko lizentzia edo baimena dutela. Era berean, beren gain hartzen dute aplikazio mugikor horren inguruan edozein eskubide urratzetik datorren erantzukizun oro, eta konpromisoa hartzen dute Antolatzaileari kalte-ordainak emateko aplikazioaren inguruan jaso dezakeen edozein erreklamaziorengatik.

Datuak babesteko eskubidea eta norberaren irudia behar bezala berma daitezten, parte-hartzaileei gomendatzen zaie tratatzen dituzten hirugarren batzuen irudiak eta beste edozein datu pertsonal erabiltzeko lor dezatela jabeen baimena. Parte-hartzaileek bermatzen dute erakundeak ez duela erantzukizunik izango datuak babesteko araudia edo beste edozein araudi betetzen ez badute.

Ez da onartuko oinarri hauek urratzen dituzten edukiak dituen proposamenik, eta ezin dute parte hartu, besteak beste, honelako edukiak dituzten app-prototipoek: indarkeriazkoak, xenofoboak edo pornografikoak, ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen dutenak, legez kanpoko jarduerak eta zerbitzuak sustatzen dituztenak edo haien publizitatea egiten dutenak, hirugarrenen ondasunak edo eskubideak urratzen dituztenak, eta Espainiako legedia edozein modutan urratzen dutenak. Halako proposamenak berehala baztertuko dira.

Antolatzaileak eta epaimahaiak beharrezkotzat jotzen dituzten bitarteko teknikoak jar ditzakete proposamenen edukia egiaztatzeko, eta une bakoitzean beharrezkotzat jotzen duten aholkua eska dezakete. Antolatzaileak lehiaketatik kanporatu ditzake lehiaketaren xedearen arabera desegokitzat jotzen dituen soluzio teknologikoak.

## **7. Saria**

Lehiaketaren 1. faseko soluzio teknologiko irabazleak 5.000 €-ko saria jasoko du.

Geratu daiteke irabazlerik gabe. Antolatzaileak eskubidea dauka, nahi badu, sariak balio bereko edo handiagoko sari baliokideekin ordeztzeko.

Sarituak dira zerga-lege eta deklarazio-baldintza aplikagarri guztiak betetzearen erantzule bakarrak.

Ez da Antolatzailearen erantzukizunpekoa nola erabiltzen duten parte-hartzaileek lehiaketako saria, eta ez du erantzukizunik hartzen parte-hartzaileek jasan dezaketen ezein kalterengatik. Antolatzaileak ez ditu bere erantzukizunpean hartzen telekomunikazio-sareek gaizki funtzionatzeagatik edo antolatzaileei egotzi ezin zaien ezinbesteko beste ezein egoeragatik eragin daitezkeen kalteak.

## **8. Epaimahaia**

Go App Bilbao Epaimahaia sei kidek osatzen dute: Bilboko Udalaren ordezkari batek; soluzio teknologikoak sortzeari lotutako pertsona batek; erronkaren esparruko aditu batek; akademiarekin lotutako teknologiaren eremuko ordezkari batek; apps4citizens-en ordezkari batek eta Google Españaren ordezkari batek. Epaimahaikide bat presidente izendatuko da eta, beste bat, idazkari.

Epaimahaia Antolatzaileak izendatuko du eta Lehiaketaren webgunean argitaratuko da nola dagoen osatuta.

## **9. Erantzukizun-salbuespena**

Parte-hartzaileek soluzio teknologikoak garatzeko izaten dituzten gastu guztiak haiek bakarrik ordaindu behar dituzte. Bestalde, app-ak egiteko edozein motatako baimenak izapidetu behar badira, pribatuak zein publikoak, parte-hartzaileek bakarrik kudeatu behar dituzte, eta parte-hartzaileek bakarrik hartuko dute beren gain baimen horiek eskatetik eta lortzetik datorren erantzukizuna haiek ematen dituzten pertsonen edo agintarien aurrean. Go App Bilbao-k ez ditu bere erantzukizunpean hartzen parte-hartzaileek edo hirugarren batzuek lehiaketan jasan ditzaketen kalteak, istripuak, gorabeherak eta/edo ondorioak.

## **10. Oinarriak non dauden gordeta**

Oinarriak\* Bartzelonako Notarioen Elkargo Ohoretsuko notario María Rocío Maestre Cavannak gordeko ditu.

Oinarrietakoren bat ez bada betetzen, hautagaia kanporatu egingo da. Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik edo desadostasunik balego, Antolatzailearen irizpidea gailenduko da, eta, behar bezala arrazoituta, Antolatzaileak aldatu ahal izango ditu oinarri hauek, nahiz eta lehiaketa hasita egon.

\*1. faseko lehiaketaren oinarriek lehiaketaren lehenengo faserako bakarrik balio dute. Lehiaketaren 1. fasea 2. fasearen aurreko etapa da, zeina Bilboko Udalak eta Cimubisak antolatuko baitute ondoren.

# Lehiaketaren oinarriak

## 2. FASEA CimubiSARIA 2017

### 1. CimubiSARIA lehiaketaren helburua

Bilboko Udalaren informatika-enpresak antolatzen du CimubiSARIA 2017 lehiaketa, zeinaren helburua hau baita: balio erantsiko ezagutza sortzeko proiektuak bultzatzea Bilboko turismoarekin lotura duten alorretan, eta proiektu horietako partaide egitea ikasleak, *start-up*ak eta, oro har, herritarrak.

Bilbao Open Data <https://www.bilbao.eus/opendata/es/inicio> eta Open Data Euskadi <http://opendata.euskadi.eus/w79-home/es/> atarien bidez emango dizkie CIMUBISAK interesa dutenei proiektu horri buruzko datuak. Nolanahi dela ere, beste zeinahi datu-iturri ere erabil dezakete, pribatua zein publikoa, betiere indarrean den legedia aintzat hartuta. Lehiaketaren 1. fasea amaitutakoan, abenduaren 17ra arteko epea dute han parte hartu dutenek beren proposamenak mugikorretarako aplikazio bihurtzeko eta data horretarako martxan jartzeko.

Bilboko turismoaren alorreko datuak aztertzea eta harentzat balioko informazioa sortzea izan behar dute helburu aplikazio horiek. Alderdi hauek aztertzen dituzten ekimenak hartuko dira aintzat: turisten bisitaldiaren aurreko nondik norakoak, nolakoa izan den bisitaldia, eta hiritik alde egin ondoren bisitaldiaz egiten dituzten balorazioak eta iruzkinak. Halaber, aintzat hartuko dira beste aplikazio hauek ere: informazio hori guztia oinarri harturik turisten egonaldia (oro har) hobetzeko ekimenak sortzen laguntzen dutenak, edo horretarako dauden ekimen publikoen eraginkortasuna hobetzekoak.

Horiez gain, beste ekimen hauek ere hartuko dira aintzat: azterketa automatizatuaren bidez aukera ematen dutenak egungo turismo-sektoreari buruzko funtsezko alderdien gaineko adierazleak eskuratzeko; besteak beste, Bilboko herritarrek turismoaz duten iritzien gainekoak, zerbitzu turistiko berriei buruzkoak...

Garrantzizkoa da datu-iturri errepikakorren arabera jasotako datuen azterketa automatizatua izatea oinarri ekimenei. Aitzitik, ez dira aintzat hartuko aise eta kosturik gabe errepika ezin daitezkeen

ekimenak; adibidez, kalean egindako inkestetan edo datuak biltzeko antzeko metodoetan oinarritzen direnak.

Aurkezten diren ekimen guztietatik, bost finalista hautatuko ditu epaimahaiak. Bigarren fasea amaitzean, epaimahaiaren aurrean beren ekimenak aurkezteko eta defendatzeko deialdia egingo zaie finalistei. Ondoren, urtea amaitu aurretik betiere, amaiera-ekitaldia egingo da, eta han banatuko dira sariak: irabazlearena eta bi accesit.

## 2. Proiektuak

Baldintza hauek bete behar dituzte lehiaketan parte hartzen duten guztiek:

- a) Bilbao Open Data <https://www.bilbao.eus/opendata/es/inicio> eta Open Data Euskadi <http://opendata.euskadi.eus/w79-home/es/> bertako atarrietako datu-multzo bat, gutxienik, erabili behar da proiektua egiteko. Beste iturri batzuetatik, publiko zein pribatuetatik, jasotako datuekin batera erabil daitezke datu horiek, baita datu berriekin batera ere, betiere legeari jarraikiz eta jabetza-eskubidea eta datuen babesa kontuan hartuta.
- b) Abenduaren 17ko 24:00etarako, berriz, martxan jarrita eta kanal nagusietan argitaratuta (Android-Google Playen eta iOS-App Storen, gutxienik) egon behar du aplikazioak, hots, eskuragarri eduki behar dute antolatzaileek eta, oro har, herritar guztiek.
- c) Martxan jarri ondoren bi urtez, gutxienez, bermatu behar dute proiektu sarituek aplikazioaren iraunkortasuna eta datuak errepikatzeko ahalmena, OPEN DATA formatuan betiere; ziurtatu behar dute, halaber, jarduerak behar duen bilakaera, eta OPEN DATA formatuan jasotako datuak eskuragarri jarri Bilboko Udalari, CIMUBISARI eta/edo beste zeinahiri.
- d) Originala izan behar du proiektuak.

Proiektuan esku hartu duten pertsona fisiko zein juridikoen kopurua kontuan hartu gabe sarituko da proiektua; dena dela, 7. puntuan ageri diren mugak betetzen dituzten pertsona juridikoek bakarrik har dezakete parte lehiaketan. Proiektu bat baino gehiago aurkez ditzake pertsona berak, banaka edo talde bateko partaide gisara.

### **3. Lehiaketaren 2. fasearen egutegia eta emaitza**

2017ko urriaren 24an hasiko da CimubiSARIA jardunaldia, hots, Go App Bilbaoren 1. fasea amaitzen den egun berean. Hurrengo fasera igaro nahi duten taldeek, berriz, [cimubisaria@cimu.bilbao.eus](mailto:cimubisaria@cimu.bilbao.eus) helbidean eman behar dute izena, CIMUBISAk onar ditzan

Ez da osatutzat joko izen-ematea harik eta CIMUBISAk berariaz jakinarazi arte, posta elektronikoz, onartu duela. Doakoa da izena ematea.

Ezin dute parterik hartu 2. fasean 1.koan parte hartu ez duten taldeek.

2017ko urriaren 24tik abenduaren 17ra bitartean jarri behar dituzte martxan beren proposamenak izena eman duten lagunek eta taldeek. 2017ko abenduaren 18ko 00:00ak baino lehen egon behar dute argitaratuta proiektuek.

Eskubidea du CIMUBISAk lehiaketatik kanpora uzteko arauak betetzen ez dituzten taldeak eta/edo lehiaketaren helburuetatik aldentzen direnak.

[cimubisaria@cimu.bilbao.eus](mailto:cimubisaria@cimu.bilbao.eus) helbidetik erantzungo diete antolatzaileek (CIMUBISA) galderei eta zalantzei.

Abenduaren 18ko astean egingo da Proiektuak Defendatzeko Jardunaldi Teknikoa, non proposamen guztiak jaso eta aztertu ondoren deialdia jasotzen duten taldeek bakarrik har dezaketen parte.

Ekitaldi horretan aurkeztuko zaizkie proiektu finalistak epaimahaiari eta turismoaren sektoreko zenbait eragileri.

Geroago (aurten, betiere) egingo da sariak banatzeko ekitaldia. Lehiaketan parte hartu duten guztiei bidaliko zaie ekitaldi horretarako gonbidapena.

#### **4. Datuen erabilera eta saritutako aplikazioaren jabetza-eskubideak**

Erabiltzaileen esperientziei buruz aplikazioek jasotako datuak CIMUBISAK edo hirugarren batzuek eskuragarri izan ditzaten, transferentzia-metodo edo -prozedura automatikoak izan behar dituzte aplikazioek era guztietako formatuetan: datu-taulak, audio-eta bideo-fitxategiak, irudiak eta sare sozialetako argitalpenak.

Eskubidea du CIMUBISAK (edo hirugarren batzuek) aplikazioak doan erabiltzeko bi urtez, haiek martxan jartzen direnetik.

Saritutako aplikazioak erosteko eta atzera eskuratzeko lehentasunezko eskubidea du CIMUBISAK, baldin eta garapen-taldeak hirugarren batzuei saltzea erabakitzen bada, edo aplikazioen eskubideak dituen erakundea desagertzen bada.

#### **5. Edukia**

Proposamen hauek bakarrik aurkez daitezke CimubiSARIA 2017ren 2. fasera: I) Go App Bilbaoren 1. fasean parte hartu dutenak; II) 2. faserako berariaz izena ematen dutenak, eta, III), **berariaz lehiaketarekin lotura dutenak.**

Kasu guztietan, originala eta norberak egina izan behar du saritutako edukiak, eta inondik ere ez du urratu behar aplikazioak hirugarren batzuen jabetza industrial edo intelektualeko eskubiderik.

Proposamenen egileek adierazten eta bermatzen dute lehiaketa honetara aurkeztu duten aplikazioak ez duela urratzen hirugarren batzuen inolako eskubide intelektualik edo bestelakorik, eta dagokion hirugarrenaren lizentzia edo baimena dutela eskubide horiez baliatzeko.

Halaber, beren gain hartzen dute Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek aipatutako aplikazio mugikorrari dagozkion eskubideetatik edozein urratzearen gaineko erantzukizuna, eta hitzematen dute kalte-ordaina emango dietela Bilboko Udalari eta/edo CIMUBISARI hori dela-eta jasotzen den zeinahi erreklamaziorengatik.



Egoki deritzeten baliabideak esleitzen dituzkete CIMUBISAk eta epaimahaiak proposamenen edukiak aztertzeko, eta une bakoitzean behar den aholkularitza eska dezakete.

Lehiaketatik kanpora utz ditzake CIMUBISAk Lehiaketaren helburuekin bat ez datozela deritzen konponbide teknologikoak.

Datuak babesteko eskubidea eta norberaren irudia zaintzekoa behar bezala bermatzeko, hau gomendatzen zaie parte-hartzaileei: eskubide horien titularren baimena eskura dezatela irudiak eta beste zeinahi datu pertsonal erabiltzeko. Aplikazioen sortzaileek bermatzen dute erantzukizun orotik libre utziko dituztela antolatzaileak baldin eta datuak babesteko araudia (edo beste edozein) urratzen baldin badute.

Ez da onartuko oinarri hauetakoren bat urratzen duen proposamenik; debekatuta dago, bestalde, eduki hauek dituzten aplikazioen partaidetza: indarkeriazkoak, xenofoboak edo pornografikoak, eta ohorearen, emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren eta norberaren irudiaren aurkakoak, legez kanpoko jarduerak edo zerbitzuak bultzatzen dituztenak, hirugarren batzuen ondasunak edo eskubideak kaltetzen dituztenak, edo indarrean den legeria edonola urratzen dutenak. Berehala geratuko dira Lehiaketatik kanpora horrelako proposamenak.

## **6. Lehiaketaren antolatzailea**

CIMUBISA enpresak antolatzen du Lehiaketaren 2. fasea, eta hari dagokio haren kudeaketa eta haren gaineko erabakiak hartzea.

Eskubidea du CIMUBISAk hautagaitzak jasotzeko eta sariak banatzeko epeak aldatzeko, bai eta Lehiaketaren beste zeinahi oinarri aldatzekoa ere, betiere horren premia eragiten duen arrazoirik baldin badago.

Ezin baldin bada Lehiaketa egin CIMUBISAren kontrolpean ez dagoen eta ekimenaren jardun normalari eragiten dion arrazoiren bat dela medio (iruzurra, akats teknikoa edo beste edozein), eskubidea du CIMUBISAk lehiaketa bertan behera uzteko edo atzeratzeko; parte-hartzaileek, berriz, ez dute eskubiderik antolatzaileei inongo erantzukizunik eskatzeko.

## **7. Parte hartzeko baldintzak**

Banaka (pertsona fisikoak edo juridikoak) har daiteke parte CimubiSARIA 2017n, edo taldeka (taldeko lau lagun, gehienez ere).

Go App Bilbaoren 1. faseko bost finalistek ez ezik, 18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok har dezake parte Lehiaketaren 2. fase honetan, bai eta elkarteek eta pertsona juridikoek ere, baldintza hauek betetzen badituzte: *start-up*ak, ETEak edo antzekoak izan behar dute; hiru urte baino gutxiago izan behar du eratu zirela; ez dute 9 langile baino gehiago izan behar; kapital sozialak 100.000 eurokoa izan behar du gehienez ere, eta azken ekitaldiko fakturazioak, 2016koak, 500.000 eurotik beherakoa. Baldintza horiek betetzen diren egiaztatzeko, dagokion dokumentazioa eskatzeko eskubidea du CIMUBISAK. Lehiaketaren 1. fasean parte hartzea ezinbesteko baldintza da 2. enean parte hartzeko.

Bajarik edo ordezkapenik baldin badago, jakinarazi egin behar zaie horren berri Lehiaketaren antolatzaileei.

Ezin dute parterik hartu Lehiaketan haren antolaketan jardun direnek, Lehiaketaren antolatzaile eta/edo laguntzaile diren erakundeetako kideek, ez eta lehen mailako haien senitartekoen, aurrekoen, ondorengoen, ezkontideen edo izatezko bikotekideen ere.

Pertsona fisikoek zein pertsona juridiko batek edo batzuek, edo pertsona fisiko eta juridikoek osatutako talde mistoek aurkeztutako proiektu guztietako partaideen datuak eman behar dituzte hautagaitzek, eta CIMUBISArekin harremanetan jarduteko ordezkari bana izendatu.

Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko jabetza intelektualaren aurkako urraketan erantzukizunik, ez eta konponbide teknologikoaren garapenaren arduradunak egiten duen bestelako zeinahi lege-urraketarenik ere; parte-hartzaileak dira arau-urratze horien arduradun bakarrak.

## **8. Nola parte hartu**

[cimubisaria@cimu.bilbao.eus](mailto:cimubisaria@cimu.bilbao.eus) helbide elektronikoan eman behar dute izena hautagaitzek, 2017ko urriaren 25a baino lehen betiere, Lehiaketaren baldintza guztiak betez, barne dela lehiaketaren 1. fasean parte hartzeko obligazioa.

Harremanetarako datu egiazkoak, eguneratuak eta funtzionalak eman behar dizkiete antolatzaileei Lehiaketan parte hartu nahi dutenek. Parte-hartzaileei Lehiaketari buruzko informazio guztia bidaltzeko erabiliko dira datu horiek; besteak beste, irabazlea zein den jakinarazteko. Irabazleak ez baditu jasotzen mezuak, zeinak berak hautatutako prozeduraren bidez bidaliko zaizkion, CIMUBISAK ez du izango inongo erantzukizunik, ez eta mezuak beste bideren batetik bidaltzeko obligaziorik ere. Hau da: fede onez beteko du CIMUBISAK bere eginkizuna, eta Lehiaketako partaideak hautatzen duen harremanetarako helbidera bidaliko ditu jakinarazpen guztiak; Lehiaketako partaideak, berriz, hitzematzen du begiratuko duela helbideak behar bezala funtzionatzen duen ("zabor-postaren" ontzia ere begiratu behar du aldiaren behin, hala badagokio).

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek osorik onartzea. Ez da behin betikoz formalizatuko partaidetza harik eta epaimahaiak egiaztatzen duen arte erregistratutako aplikazio mugikorrek betetzen dituela Lehiaketaren oinarri guztiak.

Proposamenen batek ez baditu betetzen oinarri horiek, eskubidea dute antolatzaileek haren partaidetza ez onartzeko; beraz, CIMUBISAK onspena eman arte, ez da joko behin betikoz onartutzat.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak agintzen duenari jarraikiz jardun behar da une oro. Lege horren arabera, hau jakinarazten zaie Lehiaketan parte hartuko dutenei: CIMUBISARI dagokio Lehiaketan parte hartzeko sortzen den fitxategiaren kudeaketa; fitxategiaren tratamenduak, berriz, Lehiaketa behar bezala kudeatzeko antolakuntza, hedapena eta komunikazioa ditu helburu. Jakinarazten da, halaber, tratatzen diren datuak ez zaizkiola lagako beste inongo erakunderi, legeak baimendutako kasuetan izan ezik, parte-hartzaileek horretarako baimenik ematen ez badute.

Lehiaketaren oinarriak onartzean, honetarako berriazko baimena ematen diote CIMUBISARI parte-hartzaileek eta, hala badagokie, finalistek eta irabazleek: beren irudia eta izena, eta aplikazioaren irudia eta izena, erabiltzekoa, Interneten edo beste edozein hedabidetan, Lehiaketaren kudeaketa dela-eta egiten diren sustapen publikoko ekintzetan edo jakinarazpenetan. Halaber, aplikazio finalistek eta, ondoren, irabazleen izenak argitaratzean, beren aplikazioaren izenarekin batera euren izen-abizenak edozein hedabidetan erabiltzeko baimena ere ematen dute parte-hartzaileek. Baimen horrek ez du sortzen parte-hartzaileek dirurik edo bestelako onurarik jasotzeko eskubiderik dagokien sariaren edo accesitaren zenbatekotik aparte. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko

eskubidea dute parte-hartzaileek. Horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: CIMUBISA, Campo Volantín pasealekua, 1-bis, 48007-BILBO.

## **9. Sariak**

Proiektuan esku hartu duten pertsona fisiko zein juridikoen kopurua kontuan hartu gabe sarituko da proiektua. Proiektu bat baino gehiago aurkez ditzake pertsona berak, banaka edo talde bateko partaide gisara.

Soluzio teknologiko irabazleak diploma eta 6.000 € jasoko ditu. Accedit bana emango zaie bigarren eta hirugarren puntuaziorik onenak lortzen dituztenei. Sariak: diploma eta 2.000 €.

Banatu gabe utz daitezke sariak.

Saridunei bakarrik dagokie aplikagarri diren lege fiskalak eta aitorten baldintzak betetzea.

CIMUBISAK ez du bere gain hartzen parte-hartzaileek Lehiaketaren sariez egiten duten erabileraren erantzukizunik, ez eta parte hartzen dutenek jasotzen duten edozein kalte edo galerarenik ere. Antolatzaileek ez dute berenganatzen erantzukizunik telekomunikazio-sareen funtzionamendu txarra edo haiei egotzi ezin dakiekeen ezinbesteko beste gorabeheraren bat dela eta.

## **10. Epaimahaia eta balorazio-irizpideak**

Sei kidek osatuko dute epaimahaia: Lehiaketaren alorrean aditua den pertsona batek; konponbide teknologikoen sorrerarekin lotura duen pertsona batek; Google Españaren ordezkari batek; apps4citizens-en ordezkari batek, eta Bilboko Udalaren beste batek. Epaimahaiko kideetako bat haren presidente izendatuko da; beste bat, berriz, idazkari.

CIMUBISAK izendatuko ditu epaimahaiko kideak, eta Lehiaketaren webgunean argitaratuko dira haien izenak.

Epaimahaiko kide izateak eta haren saioetara agertzeak ez dakar berekin inongo ordainik jasotzeko eskubiderik ordainsari, dieta edo kalte-ordain gisara.

Antolatzaileek eta epaimahaiak eskubidea dute Lehiaketaren arrakasta areagotzeko edozein ekimen bultzatzeko, baita oinarri hauetan jasota ez badago ere, eta ezin da inolako erreklamaziorik aurkeztu haien erabakien aurka.

Boto-gehiengoz hartuko ditu erabakiak epaimahaiak. Eskema honetako baremoa honela aplikatuta baloratuko ditu proiektuak epaimahaiak.

### Balorazio-irizpideak

Gehienez ere 10 puntu emango dizkio epaimahaiak proiektu bakoitzari, baremo honi jarraikiz:

- Erabilgarritasuna: aplikazioak izan ditzakeen erabiltzaileen kopurua izango da kontuan, bai eta aplikazioaren erabilerak sortzen dituen datuen kantitatea eta kalitatea ere. 0 eta 2 puntu artean.
- Originaltasuna, sormena eta berrikuntza. 0 eta 2 puntu artean.
- Erabilerraztasuna eta irisgarritasuna. 0 eta 2 puntu artean.
- Bideragarritasuna eta balio soziala: Bilbo interes turistikoko leku gisara sustatzeko gaur egungo aukera, eta proiektuari dakarkion balio soziala. 0 eta 2 puntu artean.
- Proiektuaren kalitate teknikoa. 0 eta 2 puntu artean.

Sarietara iristeko gutxieneko puntuazioa: 5 puntu. Ez baldin badago gutxieneko puntuazio hori lortzen duen hautagaitzarik, banatu gabe geratuko dira sariak.

## **11. Erantzukizunetik salbuestea**

Parte-hartzaileak ordaindu behar ditu konponbide teknologikoen garapena dela eta sortzen diren gastu guztiak. Aplikazioak martxan jartzeko edonolako baimen publikorik edo pribaturik behar baldin bada, berriz, parte-hartzaileei soilik dagokie baimenen izapideak egitea, eta euren soilik dagokie agintaritzetan haiek eskatzeko eta lortzeko ardura. CIMUBISA ez du bere gain hartuko inongo erantzukizunik. Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek edo hirugarren batzuek izaten dituzten ezbeharrak, istripuak edo haien ondorioak direla eta.

## **12. Sari-banaketa**

Ekitaldi formal batean banatuko dira sariak. Ordezkaritza izan behar dute ekitaldi horretan hautagaitza finalista guztiek, eta labur azaldu beren proiektuen berri. Hautagaitza baten solaskidea ezin bada ekitaldira joan, arrazoi justifikaturen bat dela medio, ordezeko norbait izendatu behar du, garaiz, proiektua defendatu eta, hala badagokio, bere izenean saria jaso dezan. [cimubisaria@cimu.bilbao.eus](mailto:cimubisaria@cimu.bilbao.eus) helbidera bidali behar ditu saridunak bere ordezekoaren datuak.

Saritutako hautagaia, edo haren ordezkoa, ez bada ekitaldira joaten, joko da sariari uko egiten diola hautagaitza horrek eta, horrenbestez, sailkapenean hurrena dagoen proiektuari emango zaio saria.

## **13. Betebeharrak**

Proiekturen bat aurkezten duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek egiaztatu behar dute, izena ematen duten egunean, hiru baldintza hauek betetzen dituztela:

a) Ez dutela laguntza edo diru-laguntza publikorik eskuratzea eragozten dien administrazio- edo zigor-zehapenik, eta ez dutela horretarako gaitasunik gabe uzten dituen legezko debekurik.

b) Egunean daudela zergen ordainketari eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioei dagokienez.

c) Ez direla betetzen ari inongo administrazio- edo zigor-zehapenik sexuagatik inor diskriminatzeagatik, eta ez daudela aipatutako debekuaren pean, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legeari jarraikiz.

Xede horietarako, proiektuaren aurkezleari edo aurkezleei buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat gehitu behar zaio proiektua aurkezteko bete behar den inprimakiari.

Halaber, deialdi honetarako proiektuak aurkezten dituztenek baimena ematen diote CIMUBISARI aurkezten diren agirien egiazkotasuna beste organismo publiko batzuetan aztertzeko.

#### **14. Oinarrien gordailutzea**

CIMUBISAn (Campo Volantín pasealekua, 1-bis, 48007-Bilbo) egongo dira oinarriak.

Oinarrietakoren bat ez betetzeak berekin dakar hautagaia Lehiaketatik kanpora uztea. Zalantzarik edo desadostasunik sortzen bada oinarri hauen interpretazioa dela eta, CIMUBISAren irizpidea lehenetsiko da eta, behar bezala justifikatutako arrazoirik baldin badago horretarako, oinarri hauek aldatzeko eskubidea du CIMUBISAK, baita Lehiaketa hasita badago ere.